

## GURE ESTATUA ETA INDEPENDENTZIA BERRESKURATZEKO

Aurreko hizlariak panorama nolakoa den argi utzi digute, eta, dudarik gabe, bagenuke andana bat adibide analisi horren sakontzeko. Baina, gauzak aldatu nahi baditugu, ezin gara egoeraren deskribapenera mugatu. Gure **estatua eta independentzia berreskuratzeko** bulkada berpiztu eta urratsak egin behar ditugu.

Bide horretan, bi zango behar ditugu; bi fronte ireki behar ditugu, aldi berean: **fronte ideologikoa** eta **fronte egituratzailea**. Biak ezinbestekoak dira aurrera egiteko.

Fronte egituratzailearen zeregina izanen da gure herriak, gure populuak bizirauteko ezinbestekoak dituen **egitura nazionalak osatzea**. Baina, orain arteko tranpetan erori nahi ez badugu, instituzio horiek auto-zentratuak izan beharko dute, alegia, **etsaien esparru arrotz eta hilgarrietatik at**. Hobe dugu gure bide propioa, segurua, emekiago egitea, etsaien bide erosoagoak segitzea baino. Haien bideek gu haiek bilakatzera baikaramatzate.

Hasi behar dugu egituratzen, Euskal Herri osoan, gure atal bat ere bazter utzi gabe. Izan ere, egituratze hori **ezinbestekoa zaigu izateko, jarduteko, ekiteko** eta fronte ideologikoa ere pausoa eman ahal izateko. Zango batek bestearen beharra duen bezala. Gainera, **fronte egituratzaileak gure nazioa gorpuztuko du**. Egitekoak dituen lan guztien burutzeko gorputz-adarrak edo organoak emanen dizkio gure nazioari: lurralde-antolaketa, ekonomia, hezkuntza, kultura, komunikazioa, nazioarteko harremanak eta abar kudeatuko dituzten egiturak.

Baliteke gorputz-adar horietako batzuk jada sortuak izatea. Kasu horretan, **ikuspegi benetan nazionala, abertzalea dutela bermatu** beharko dugu. Sortu behar baditugu, sor ditzagun. Neurri xumeenetik hasita ere, baina **izate propioarekin**.

Fronte ideologikoaren eginkizuna izanen da gure herriaren, gure **populuaren autoestimua, kontzientzia nazionala berpiztea eta batzuetan piztea**. Gure gorputzak, bi zangoez gainera, buru argia beharko duelako, eta berezkoa, bere **bide propioa jorrazteko**. Fronte ideologikoa **gure nazioaren espiritua, arima, gogoa eta bihotza bizirik mantenduko ditu**. Odolak organoak oxigenoz elikatzen dituen bezalaxe, fronte ideologikoa nazioaren egitura guztietara iritsi beharko da gorputz-adar jator berezkoak izaten segi dezaten.

Nazioartean populu gisa aitortuak ditugun **eskubideak gizarteratu** behar ditugu. Horrek, populu izateak, esan nahi du ez garelako ez espainolak, ez eta frantsesak ere. Ebidentzia da guretzat, baina, zorigaitzez, euren burua abertzaletzat duten zenbaitentzako ez da, gaur egun, hain ebidentea. Eskura dauzkagun **tresna guztiak baliatu** beharko ditugu gure populu

izaera eta dagozkion eskubideak gizarteratzeko. Baina, horrekin batera, eta horren osagarri, **gure historia, gure epika, gure narratiba ere irakatsi eta hedatu beharko ditugu**, gure izatearen eta eskubideen lekukoak direlako.

Hauxe da, beraz, proposamena. **Askapen estrategia nazionalaren bi fronte irekitzea**: bata egituratzailea eta bestea ideologikoa. Independentziarako bidea urratzeko gure bi zangoak.